Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko otsailaren 25a, ostirala — 38 — Viernes, a 25 de febrero de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORIOKO UDALA

*Behin betiko onarpena ematea Orioko ibilgailu eta pertsonen zirkularioaren eta bide urbanoen erabileraren alderdi batzuk regulatzen duen udal ordenantzari.*

Udal honetako udalbatzarrak, 2021eko azaroaren 25ean egindako ohiko bilkuran, lehen onarpena eman zion Orioko ibilgailu eta pertsonen zirkularioaren eta bide urbanien erabileraren alderdi batzuk regulatzen duen udal ordenantzari.

Ordenantza hori hogeita hamar laneguneko epean jarri zen jendaurrean, 2021eko abenduaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 238. zenbakian argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdunen aldetik inolako erreklamazio zein iradokizunik, Ordenantza behin betikoz onartutzat ematen da.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da udal araudi erregulatzailearen testua; testua ez da indarrean sartuko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lanegunetako epea iragan arte.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurretik, udalbatzarraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte edota presuntziozko ezespena eman arte.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

Orio, 2022ko otsailaren 7a.—Anuska Esnal Oliden, alkatea.
(812)

ERANSKINA

*Pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioaren eta bide urbanoen erabileraren alderdi batzuk arautzen dituen Ordenantza.*

SARRERA

Indarrean dagoen trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legeak eskumena ematen die udalei beren titulartasuneko bide urbanoetan trafikoa ordenatu eta kontrolatzeko, eta baita udaltzainen bidez zaintzeko, bide horietako arau-hausteak salatzeko eta zigorrak ezartzeko ere, eskumena berariaz beste administrazio bati ematen ez dionean.

## AYUNTAMIENTO DE ORIO

*Aprobación definitiva de la ordenanza municipal reguladora de determinados aspectos de la circulación de personas y vehículos y el uso de las vías urbanas de Orio.*

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 25 de noviembre de 2021, acordó aprobar inicialmente la ordenanza municipal reguladora de determinados aspectos de la circulación de personas y vehículos y el uso de las vías urbanas de Orio.

Habiéndose sometido dicha Ordenanza al trámite de exposición pública por el plazo de treinta días hábiles mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 238 de fecha 15 de diciembre de 2021 y no habiéndose presentado por parte de los interesados reclamación ni sugerencia alguna, se tiene por aprobada definitivamente la citada Ordenanza.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, a continuación se procede a publicar como anexo a este anuncio el texto del reglamento regulador, con la indicación de que no entrará en vigor hasta que se haya publicado el texto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo de quince días hábiles.

Contra el acuerdo municipal que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la publicación.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso potestativo de reposicion ante el Pleno de este Ayuntamiento, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

Orio, a 7 de febrero de 2022.—La alcaldesa, Anuska Esnal Oliden.
(812)

ANEXO

*Ordenanza para regular determinados aspectos de la circulación de personas y vehículos y el uso de las vías urbanas de Orio.*

PREÁMBULO

La vigente Ley sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial atribuye a los Ayuntamientos la competencia para ordenar y controlar el tráfico en las vías urbanas de su titularidad, así como su vigilancia por medio de agentes propios, la denuncia de las infracciones que se cometan en dichas vías y la sanción de las mismas cuando no esté expresamente atribuida a otra Administración.

EK\CV GAO-I-2022-00812

Legea, berau garatzeko erregelamendua eta trafiko arloan dagoen gainerako araudia nahiko zehaztuta daude Udalak zuzenean aplikatu ditzan. Hala ere, logikoa den bezala, udalerri bakoitzeko bide urbanoen sarearen berezitasuna dela medio, ezinezkoa da legeria orokorra Udalen behar eta arazo guztietara egokitzea eta horiei guztiei erantzun bat ematea.

Horregatik, trafiko legeriak berak, apirilaren 7ko 6/2014 Legearen bidez aldatutako Trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bideetako segurtasunaren legearen testu artikulatuari (martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegile bidez onartua) emandako idazkeran, Udalei, beste eskumenen artean, udal-ordenantza bidez bide urbanoen erabilerak arautzeko ahalmena ematen die, eta aparkaldi mugatuko neurriak ezartzeko ere bai.

Oraingo honetan, Orioko udalerriari berezko arau batzuk ezarri nahi zaizkio, Legearen esparru orokorrean ezarritakoen osagarriak, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna hobetzeko, eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko.

*1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.*

Trafiko eta zirkulazio gaietan udalei legez ematen zaizkien eskumenen arabera idatzi da ordenantza hau. Orioko bide urbanoetako zirkulazioarekin eta horien erabilerarekin zerikusi duten alderdi batzuk arautzea du helburu, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna hobetzeko, eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko.

*2. artikulua. Trafikoa antolatzeko eta bide urbanoak seinaleztatzeko neurriak.*

1. Bide urbanoen titularra den aldetik, Udalak trafikoa antolatzeko bidezko irizten dituen neurriak hartuko ditu, eta zirkulazio-seinale eta bide-marka egokiak jarri eta zainduko ditu, ezarrita dagoen formatu ofizialaren arabera.

2. Udalaren barruan, alkatetza da trafikoa arautzeko neurri iraunkorrak erabakitzeko eta zirkulazio-seinaleak jartzeko organo eskuduna, ordenantza bidez arautu beharreko gaietan udalbatzarrak duen eskumenaren kalterik gabe.

Erabakiak arrazoituta hartuko dira; udal Hirigintzako plangintzan eta gainerako udal-ordenantzetan bide-sareari buruz jasotako araudia eta determinazioak bete behar dituzte, eta horiekin behar bezalako koordinazioa gordeko dute.

3. Aldiro, erabakitzen den maiztasunarekin, udaltzaingoak udal-titulartasuneko bide urbanoetako trafikoari buruzko Memoria bat igorriko dio Alkatetzari.

Memoria horretan honako gaiei buruzko erreferentziak eta proposamenak jasoko dira: abiadura-mugak, ibilgailuen zirkulazioa, oinezkoentzako guneak, aparkalekua, zamalanak, garraio publikorako geralekuak, eta trafikoaren antolamenduarekin lotutako beste batzuk. Dagokion udal-batzordeak Memorian jasotako proposamenak eztabaidatu eta beharrezko txostenak jaso eta gero, alkateak onartuko du eta hori izango da oinarrizko erreferentzia, herriko trafikoa arautzeko gaietan akordioak hartzeko.

4. Alkateak bere eskumenen erabilera delegatu ahal izango du, aplikatu beharreko legeriaren arabera.

5. Udaltzainek zirkulazioaren ordenamendua eta ezarritako seinaleak aldi jakin baterako aldatu ahal izango dituzte. Horretarako, bat-bateko gertakizunengatik behar diren seinaleak jarri edo kendu ahal izango dituzte eta beharrezko neurriak hartuko dituzte ibilgailuen nahiz pertsonen zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna lortzeko.

La Ley, el reglamento para su desarrollo y el resto de la normativa existente en materia de tráfico son en general lo suficientemente detalladas para su aplicación directa por los Ayuntamientos. Sin embargo, como es lógico, la especificidad de la trama viaria urbana de cada municipio hace imposible que la legislación general pueda adaptarse y dar respuesta a todas las necesidades y problemas de los Ayuntamientos.

Es por ello que la propia legislación de tráfico, en la redacción dada por la Ley 6/2014, de 7 de abril, por el que se modifica el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de vehículos a motor y Seguridad Vial, aprobado por Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, otorga a los Ayuntamientos, entre otras competencias, la facultad de regular mediante ordenanza municipal los usos de las vías urbanas, así como el establecimiento de medidas de estacionamiento limitado.

En esta ocasión se pretende dotar al municipio de Orio de determinadas normas propias, complementarias a las establecidas en el marco general de la Ley, con la finalidad de aumentar la seguridad de los usuarios, mejorar la necesaria fluidez del tráfico rodado y garantizar la rotación y el buen uso de los aparcamientos.

*Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.*

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las competencias legalmente atribuidas a los Ayuntamientos en materia de Tráfico y Circulación. Su objeto es regular determinados aspectos relacionados con la circulación y uso de las vías urbanas de Orio con la finalidad de aumentar la seguridad de los usuarios, mejorar la necesaria fluidez del tráfico rodado y garantizar la rotación y el buen uso de los aparcamientos.

*Artículo 2. Adopción de medidas de ordenación del tráfico y señalización de vías urbanas.*

1. Como titular de las vías urbanas el Ayuntamiento adoptará las medidas de ordenación del tráfico que considere oportunas e instalará y conservará las adecuadas señales y marcas viales de circulación con arreglo al formato oficial que esté establecido.

2. Dentro del Ayuntamiento, sin perjuicio de la competencia del Pleno en materias cuya regulación deba ser objeto de una ordenanza, será la Alcaldía el órgano competente para acordar medidas de regulación del tráfico de carácter permanente y la instalación de las señales de circulación que sean pertinentes.

Los acuerdos se adoptarán motivadamente y deberán respetar y guardar la debida coordinación con la normativa y determinaciones sobre red viaria contenidas en el planeamiento urbanístico municipal y demás ordenanzas municipales.

3. Con la periodicidad que se determine, la policía municipal elevará a la Alcaldía una Memoria sobre el tráfico en las vías de titularidad municipal.

La Memoria abordará cuestiones y contendrá propuestas relacionadas con limitaciones a la velocidad y circulación de los vehículos, áreas peatonales, estacionamiento, carga y descarga, paradas del transporte público y otras relacionadas con la ordenación del tráfico. Una vez debatida en la comisión municipal informativa correspondiente y aportados los oportunos informes, será aprobada por la Alcaldía, y será la referencia básica para adoptar acuerdos en materia de regulación del tráfico del municipio.

4. La Alcaldía podrá delegar el ejercicio de sus atribuciones de acuerdo con la legislación aplicable.

5. Los agentes de la policía municipal podrán modificar circunstancialmente la ordenación de la circulación y la señalización establecida, para lo que podrán colocar o retirar provisionalmente las señales que sean precisas y tomar las medidas que sean necesarias, en razón de contingencias sobrevenidas y en orden a la seguridad y fluidez de la circulación de vehículos y personas.

EK\CV GAO-I-2022-00812

6. Partikularrek informazio-seinaleak jartzeko, Udalaren baimena beharko da beti, eta baimen hori interes publikoko arrazoiak daudenean emango da.

Seinaleztapenaren arloan eskumena duen udal-organoak kendu egingo ditu indarrean dagoen araudia betetzen ez duten seinaleak, behar bezala baimenduta ez daudenak edo udal-baimenaren baldintzak betetzen ez dituztenak, hori guztia legokiokeen zehapenaren kalterik gabe.

Debekatuta dago seinaleen edukia aldatzea, edo haien gainean edo haien ondoan plakak, kartelak, markesinak, iragarkiak, markak edo nahasgarriak izan daitezkeen beste objektu batzuk jartzea, seinaleen ikusgarritasuna edo eraginkortasuna murriztu dezaketenak, bidearen erabiltzaileak itsutu ditzaketenak edo arreta galarazi diezaieketenak.

I. TITULUA

IBILGAILU MOTORDUNEN ZIRKULAZIOA

*3. artikulua. Lehentasuneko bideak.*

1. Lehentasuneko bide urbanoak honako hauek dira: beren ibilbideagatik, kokalekuagatik eta beste bideekin duten loturagatik udalerriko oinarrizko bide-sarea osatzen dutenak eta, oro har, trafikoa banatzeko ezinbestekoak direnak; eta oinarrizko bide-sarearen izaera lortzera iritsi gabe, neurri eta ezaugarri jakin batzuk izanik, ibilgailu motordun gehientsuenen zirkulaziorako egokiak diren bideak.

2. Hauek dira, esaterako, Orioko lehentasunezko bide urbanoak:

— Txanka - Hondartza Bidea.

— Hondartza Bidea.

3. Udalak lehentasuneko bide urbanoen katalogo zehatz eta eguneratua edukiko du. Alkatetza da katalogoan sartutako lehentasuneko bideak aldatu, zabaldu edo gutxiagotzeko organo eskuduna. Erabakiak arrazoitu egin beharko ditu beti.

*4. artikulua. Zirkulatzeko mugak eta baimen bereziak ibilgailu jakin batzuentzat.*

1. Oro har, ibilgailuen zirkulazioak lehentasunezko bide urbanoetan arau hauetatik eratorritako murrizketak baizik ez ditu izango: indarrean dagoen legedia, Udalak trafikoa antolatzeko onartutako neurriak eta herrian jarritako zirkulazio-seinaleak.

2. Antxiola, Iturbide eta Ibai-Ondo kaleetan, alde zahar guztian eta Udalak bere ezaugarriengatik horrela erabakitzen duen beste eremu batzuetan, ez da inolako autobus eta kamioien sarrera eta zirkulazioa onartuko.

3. Gainerako bide urbanoetan debekatuta dago, baimen berezia izan ezik, ondoko pisuak edo neurriak gainditzen dituzten ibilgailuen zirkulazioa:

— Oro har, 5.000 kg-tik gorako pisu edo masa baimendua dutenak, edo 8 m-ko luzera, 2,5 m-ko zabalera edo 3,5 m-ko altuera dutenak.

Gehieneko pisu baimendua hau da: ibilgailu baten zirkulazio normalerako baimentzen den kargako pisurik handiena. Bide horietan dagozkion seinaleak jarriko dira, gidariei arau murriztaile horiek jakinarazteko.

*5. artikulua. Lehentasunekoak ez diren bideetan zirkulatzeko baimen bereziak.*

1. Aurreko artikuluan zehaztutako ezaugarriak dituen ibilgailu batek lehentasunekoa ez den bide urbano batetik zirkulatu ahal izateko, baimen berezi bat izan beharko du, iraunkorra edo aldi baterakoa. Alkatetzak emango du baimen hori, ibilgailuaren ezaugarriak, komunikazioak, kokalekua, egitekoak edo bestelako gorabeherak aztertu ondoren.

6. La instalación por particulares de señales informativas requerirá siempre de autorización municipal, que será otorgada cuando concurran motivos de interés público.

El órgano competente municipal en materia de señalización procederá a la retirada de toda aquella señalización que no cumpla la normativa vigente, no esté debidamente autorizada o incumpla las condiciones de la autorización municipal, todo ello sin perjuicio de la pertinente sanción.

Se prohíbe modificar el contenido de las señales o colocar sobre ellas o al lado de estas, placas, carteles, marquesinas, anuncios, marcas u otros objetos que puedan inducir a confusión, reducir su visibilidad o eficacia, deslumbrar a las personas usuarias de la vía o distraer su atención.

TÍTULO I

LA CIRCULACIÓN DE VEHÍCULOS A MOTOR

*Artículo 3. Vías preferentes.*

1. Se consideran vías urbanas preferentes aquéllas que por su recorrido, situación y comunicación con otras vías forman parte de la red viaria básica del municipio y resultan imprescindibles para la distribución del tráfico en general; y las que sin llegar a alcanzar tal carácter de red viaria básica tengan unas dimensiones y características determinadas que las hacen aptas para la circulación de la generalidad de los vehículos de motor.

2. A título orientativo, se entienden como vías urbanas preferentes de Orio las siguientes:

— Txanka - Hondartza Bidea.

— Hondartza Bidea.

3. El Ayuntamiento dispondrá de un catálogo detallado y actualizado de las consideradas vías urbanas preferentes. La Alcaldía será el órgano competente para modificar ampliar o reducir las vías preferentes incluidas en el catálogo, y siempre tendrá que motivar sus decisiones.

*Artículo 4. Limitaciones y permisos especiales para la circulación a determinados vehículos.*

1. Con carácter general, en las vías urbanas preferentes la circulación de vehículos no tendrá otras restricciones que las derivadas de la legislación vigente, las medidas de ordenación del tráfico aprobadas por el Ayuntamiento y las señales de circulación puestas al efecto.

2. En las calles Antxiola, Iturbide e Ibai-Ondo, así como en todo el casco histórico y aquéllas otras en las que por sus características así se decida por el Ayuntamiento, no se permitirá el acceso y tránsito de autobuses ni de camiones de ningún tipo.

3. En el resto de las vías urbanas se prohíbe, salvo permiso especial, la circulación de vehículos que superen los siguientes pesos o dimensiones:

— Con carácter general, un peso o masa máxima autorizada de 5.000 kg o unas dimensiones de 8 metros de longitud, 2,5 metros de anchura o 3,5 metros de altura.

Se entiende por peso máximo autorizado el mayor peso en carga con que se permite la circulación normal de un vehículo. En estas vías se colocarán las pertinentes señales que informen a los conductores de las mencionadas normas restrictivas.

*Artículo 5. Permisos especiales para circular por vías no preferentes.*

1. Para que un vehículo de las características de los definidos en el artículo anterior pueda circular por una vía urbana no preferente deberá contar con una autorización especial de carácter permanente o temporal a otorgar por la Alcaldía ponderando las características del vehículo, comunicaciones, situación, labores a realizar u otras circunstancias que concurran.

EK\CV GAO-I-2022-00812

2. Baimen berezi bat ematen denean, ibilgailuaren gidariak, udaltzaingoaren laguntzaz, neurri egokiak hartuko ditu bide publikoetako gainerako erabiltzaileei arrisku edo kalterik ez sortzeko. Edozein kasutan ere, baimenaren titularra izango da salbuespenez baimendutako zirkulazioaren ondoriozko kalte-galeren erantzulea.

3. Ematen diren baimen berezietan, hauek jaso behar dira gutxienez:

— Balio-epea.

— Ibilgailuak egin beharreko ibilbide zehatza.

— Hartu beharreko segurtasun-neurriak.

— Zirkulatzeko, maniobrak egiteko edo aparkatzeko ordutegia.

— Bide publikoaren segurtasuna bermatzeko beharrezko diren ohar guztiak.

— Hala badagokio, obrak edo bestelako gertakizunak direlaeta galtzada okupatzeko eta aldi baterako ixteko baimen bereziengatik ordaindu beharreko tasa, Udaleko ordenantza fiskaletan ezartzen denaren arabera.

4. Murriztapen hauetatik salbuetsita daude garraio-zerbitzu publikoetako ibilgailuak, udalerriaren barruan linea erregularra edo geralekua baimenduta badute.

*6. artikulua. Baimendutako gehienezko abiadura-muga.*

Oro har, Orioko bide publikoetan debekatuta dago orduko 30 km-tik gorako abiaduran zirkulatzea, kasu bakoitzerako ezartzen diren muga espezifikoei kalterik egin gabe.

*7. artikulua. Ibilgailuak aparkatzeko muga espezifikoak.*

1. Herriko eremu jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzeko aldi baterako denbora-mugak ezartzea alkate-dekretuz edo ordenantza espezifiko baten bidez arautuko da.

2. Debekatuta dago bide publikoetan ibilgailu motordunetatik bereizitako mota guztietako atoiak eta erdi-atoiak aparkatzea; bai eta ibilgailu artikulatuak, kamioiak, autobusak, traktoreak, edo obra, zerbitzu eta nekazaritzarako ibilgailuak eta, oro har, 3.500 kg-tik gorako pisu edo masa baimendua duten ibilgailuak, edota zabalera nahiz luzerako neurrietan aparkalekuetarako gordetako perimetroa gainditzen duten ibilgailuak.

Ibilgailu horiek horretarako baimendutako toki eta aldietan bakarrik aparkatu ahal izango dute, edo baimendutako ordutegian zamalanak egiteko.

3. Debekatuta dago espaloietan eta oinezkoentzako kaleguneetan ziklomotorrak eta motorrak aparkatzea, bereziki horretarako egokitutako espazioetan izan ezik.

4. Aparkaleku-plazen errotazioa eta erabilera egokia bermatzeko, guztiz debekatuta dago erabilera publikoko bideetan edo beste espazio batzuetan ibilgailuak erakusteko, alokatzeko edo saltzeko jarduera komertziala egitea.

Jarduera horiek egiten direla ulertuko da ibilgailuaren eskaintza egiten denean baimendutako establezimendu komertzial batetik kanpo, ibilgailuan bertan prezioa edo beste datu batzuk (telefono-zenbakia, helbidea edo saltzailearekin harremanetan jartzeko beste edozein aukera) adierazteko kartelak, iragarkiak edo bestelako elementu batzuk jarrita.

Aipatutako jarduera komertzialaren xede den ibilgailua jaso eta dagokion biltegira eraman dezake Udaltzaingoak, baldin-eta bi egun natural edo gehiago badaramatza bide edo espazio publiko berean aparkatuta eta bere egoera adierazteko kartela ja-

2. Cuando se otorgue una autorización o permiso especial, el conductor del vehículo en colaboración con la Policía Local, procederá a tomar todas las medidas oportunas para garantizar que no se produzcan riesgos o perjuicio para los demás usuarios de las vías públicas. En todo caso, el titular del permiso será responsable de los daños y perjuicios que se deriven de la circulación excepcionalmente autorizada.

3. En las autorizaciones especiales que se concedan constará como mínimo lo siguiente:

— Período de validez.

— Recorrido concreto que deberá efectuar el vehículo.

— Medidas de seguridad que deberá adoptar.

— Horario en el que deberá circular, realizar maniobras o estacionar.

— Todas aquellas indicaciones que sean necesarias para garantizar la seguridad de la vía pública.

— En su caso, la tasa que corresponda a abonar en concepto de autorizaciones especiales para ocupación de calzada y cierre temporal con motivo de obras u otras contingencias, de acuerdo con lo que se establezca en las ordenanzas fiscales del Ayuntamiento.

4. De estas restricciones quedarán excluidos los vehículos destinados a los distintos servicios de transporte público que tengan autorizada línea regular o parada dentro del municipio.

*Artículo 6. Límite máximo de velocidad autorizada.*

Sin perjuicio de las limitaciones específicas que se establezcan para cada caso, en las vías urbanas de Orio, con carácter general, queda prohibida la circulación a una velocidad superior a 30 km/h.

*Artículo 7. Limitaciones específicas al estacionamiento de vehículos.*

1. La limitación temporal del estacionamiento de vehículos en determinadas zonas del municipio será objeto de regulación mediante decreto de alcaldía u ordenanza reguladora específica.

2. Queda prohibido estacionar en las vías públicas, remolques y semirremolques de todo tipo separados de vehículos de motor; así como vehículos articulados, camiones, autobuses, tractores, vehículos concebidos para obras, servicios y labores agrícolas, y en general, cualesquiera vehículos cuyo peso o masa máximo autorizado exceda de 3.500 kg, o que por sus dimensiones excedan en anchura o largura el perímetro reservado para las plazas de aparcamiento.

Estos vehículos sólo podrán estacionar en los lugares y períodos autorizados para ello, o para efectuar tareas de carga y descarga dentro del horario autorizado.

3. Queda prohibido el estacionamiento de ciclomotores y motocicletas en aceras y en los tramos de calles reservados al tráfico peatonal, salvo en las especialmente habilitadas para dicho fin.

4. Con el objeto de garantizar la rotación y el buen uso de las plazas de aparcamiento, queda terminantemente prohibida la utilización de las vías u otros espacios de uso público para la actividad comercial de exposición, alquiler o venta de vehículos.

Se entenderá que se realizan dichas actividades cuando se efectúen fuera de un establecimiento comercial autorizado, mediante ofrecimiento en el propio vehículo por medio de carteles, letreros u otros elementos indicativos de su precio y otros datos tales como el número de teléfono, dirección u otra posibilidad de contactar con el promotor (vendedor).

La Policía Local podrá proceder a la retirada y traslado al depósito correspondiente, de los vehículos objeto de la actividad comercial reseñada cuando estén estacionados durante más de dos días naturales en la vía o espacios públicos y porten car-


EK\CV GAO-I-2022-00812

rrita badauka. Neurri hori aplikatzeak eragin ditzakeen gastuak arau-hauslearen kontura izango dira, ireki daitekeen zigor-espedientearen kalterik gabe.

5. Mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuak aparkatzeko baimendutako guneetan, debekatuta dago 48 orduan jarraian ibilgailua plaza berean edukitzea, hain zuzen ere, plazak dagokion errotazioa izan dezan eta beste pertsona batzuek ere erabili ahal izan dezaten.

Udaltzaingoak denbora-muga hori gainditzen duen ibilgailua erretiratu ahal izango du, akta bat idatziz eta argazkiak eginez, dena jasota geratzeko.

*8. artikulua. Zamalanak.*

1. Udalak zamalanetarako izendatu eta egokitzen dituen guneak, espresuki salgaien garraioan ari diren ibilgailuek bakarrik erabili ahal izango dituzte, eta lan horiek egiteko bakarrik.

Dena den, zamalanak egiterakoan, aparkatzeko arauak beteko dira, bide publikoko gainerako erabiltzaileentzat arrisku edo kalterik sortu gabe.

2. Seinaleetan adierazitako ordutegia gorabehera, ezin izango da zamalanik egin goizeko 8:00ak baino lehen eta arratsaldeko 20:00ak ondoren, salbuespeneko kausengatik baimena lortu ezik.

Debekatuta dago zamalanak egitea larunbatetan 14:00etatik aurrera, eta igande eta jaiegunetan egun osoan, salbuespenezko arrazoiengatik emandako baimena izan ezik.

Zamalanetarako lehentasunezko bi eremu ezarri dira, interes orokorragatik asteko 7 egunetan 24 orduz mantenduko direnak:

— Endaia kaleko zamalanetarako eremua, udalerriaren sarreran.

— Hondartza bidean, udal-kanpinaren ondoko zamalanetarako gunea.

3. Orioko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren Hirigintzako Arau Orokorren erabilera tertziarioko hirugarren kategorian sailkatutako jarduera komertzialek honela egingo dituzte zamalanak:

— Jarduera komertziala etxebizitza erabilera nagusia duen eraikin batean badago, zamalanak eraikinaren kanpoaldean egingo dira, betiere kasu bakoitzean Udalak ezarritako baldintza espezifikoen arabera.

— Jarduera komertziala etxebizitza erabilera nagusia ez duen eraikin batean badago, zamalanak eraikinaren partzela pribatuaren barnean egingo dira, betiere kasu bakoitzean Udalak ezarritako baldintza espezifikoen arabera.

*9. artikulua. Salgai arriskutsuen garraioa.*

1. Orioko udalerriko bide urbanoetan debekatuta dago, baimen berezia izan ezik, arlo honi buruzko araudi espezifikoan jasotzen diren definizioen arabera arriskutsutzat jotzen diren salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuen zirkulazioa.

2. Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek Orioko bide urbanoetako tarteren bat erabili behar badute, estatuko edo erkidegoko organo eskudunen baimenaz gain, udal-baimen berezi bat eskatu behar dute.

